



AULESTIKO UDALA

DIRULAGUNTZEN OINARRI ESPEZIFIKOAK, MIKROENPRESA ETA AUTONOMOENTZAKO LAGUNTZAK EMOTEKO, COVID-19ak ERAGINDAKO ONDORIO EKONOMIKOAK ARINTZEKO

1. Dirulaguntzen xedea

Oinarri honeen helburua da dirulaguntzak emotean aplikau beharreko oinarri arautzaileak ezartzea, mikroenpresen eta Aulestiko norberaren konturako langileen artean, COVID-19ren pandemiari aurre egiteko deklarautako osasun-alarmak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko.

2. artikulua.— Onuradunak

Laguntzak jaso ahal izango dituzte alarma-egoera indarrean jarri zen egunean baldintza hauek betetzen zituzten pertsona autonomoek eta mikroenpresek:

- a. Jarduera Aulestin egitea eta garatzea eta bertan izatea bere helbide fiskala.
- b. 2020ko martxoaren 15etik maiatzaren 10era arteko epealdian euren jarduera alarma-egoeragatik eten bada, edo alarma-egoeraren ondorioz euren fakturazioa murriztu bada %50 edo gehiago aurreko urteko epealdi berdineko batez besteko fakturazioarekin alderatua. Jarduera hori ez badute aurreko urte osoan egin, jarduera-aldiko batez besteko fakturazioa hartuko da kontuan.
- c. Euren jardueraren hasiera 2020ko martxoa baino lehen emonik izatea eta bajaran emon gabe jarraitzea, eta jarduera horretan mantentzea gutxienez aipaturiko diruz laguntzeko epealdia amaitu eta beste hiru hilabetean.

Ezingo dira onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan zerrendatutako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

3. artikulua.—Diruz lagun daitezkeen egitateak

- a. Bere jarduera alarma-egoeragatik eten bada:
 - i. Jarduerarekin lotutako lokalen alokairu-gastuak.
 - ii. Jarduera galtzeagatiko konpentsazioa modu zuzenean.
- b. Euren fakturazioa alarma-egoeraren ondorioz murriztu bada %50 edo gehiagoko %-an aurreko urteko epealdi berdineko batez besteko fakturazioarekin alderatua.



AULESTIKO UDALA

- i. Jarduera gutxitzeengatiko konpentsazio zuzena.

4. artikulua.—Diruz lagundu daitekeen aldia

Diruz lagundu daitekeen aldia 2020ko martxoaren 15etik 2020ko maiatzaren 10era artekoa izango da, bi egunak barne.

5. artikulua.—Laguntzen zenbatekoa

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira enpresa onuradunaren kontabilitatearen ondorioetarako, ezarritako diruz laguntzeko moduko egitate eta gastuengatik.

Diru-laguntzen gehieneko kantitateak hauek izango dira:

- a. Bere jarduera alarma-egoeratik eten denean.
 - i. Alokairu-gastuetarako diruz laguntzeko epealdiaren barruan ordaindutako errenten %50 arte, gehienez 1.000 euro.
 - ii. Jarduera erabat eteteagatik diruz laguntzeko epealdiaren barruan, negozio bakoitzeko 700 euroko kopuru bakarra emango da. Erabateko etendura izango da negozioan aritzeak bezeroarekiko zuzeneko interakzioa eskatzen duena.
- b. Euren fakturazioa, alarma-egoeraren ondorioz murriztu egin bada.
 - i. Diruz laguntzeko epealdiaren barruan fakturazioa %50 edo gehiago murriztu zaien onuradunen kasuan 400 euroko kopuru bakarra jaso ahal izango dute negozio bakoitzeko.

Era guztietan, diruz laguntzeko epealdia laburragoa baldin bada aste naturalen arabera prorrateatuko da.

6. artikulua.—Eskabideak aurkezteko lekua eta epea

Eskabideak honela aurkeztu beharko dira:

- Udal-bulegoetan.

Informazioa eta eskabide-ereduak udalaren webgunean ere egongo dira eskuragarri.

Eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2020ko abuztuaren 10ean amaituko da.

7. artikulua.—Eskabideen gehieneko kopurua

Onuradun bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du.



AULESTIKO UDALA

8. artikulua.—*Erantsi beharreko agiriak*

Eskaera egiteko unean, honako dokumentazioa aurkeztuko da:

- NAN-a.
- Hala badagokio, ordezkari-tza-dokumentu nahikoa.
- Jarduera nagusiaren deskribapena.
- 2019 eta 2020ko bigarren hiruhilabetei dagozkien aitoren kopia, zeintzuk lagundu daitekeen epealdi barruko fakturazio murrizketa agertaraziko duten, edota murrizketa hori agertarazten duen legezko baliozkotasundun bestelako agiri bat .
- Eskabidea, xedapen honi erantsitako ereduaren arabera beteta.
- Alokairu-kontratuen kopia.
- Egindako ordaintzen faktura edo antzeko frogar-balioa duten egiaztagiriak.
- Diru-laguntza ordaintzeko banku-helbideratzearen fitxa, behar bezala beteta eta sinatuta.

Eskabideak ez badira erabat formalizatzen edo dokumentu honetan eskatutako agiriren bat falta bada, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela, dagokion ebazpena eman ondoren.

Udalak, kasuak kasu, beste edozein agiri osagarri eska diezaioke erakunde eskatzaileari, aurkeztutako eskaeraren balorazio osoa egiteko.

9. artikulua.—*Diru-laguntzaren ordaintza*

Diru-laguntzaren ordaintza egindako gastuaren gainean egingo da.

Onuradunak, diruz lagundu daitekeen egitatean jasotako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu eta, behar bezala egiaztatuta ondoren, dagokion ordaintza egingo da.

Halere, aipaturiko diruz laguntzeko epealdia amaitu eta gutxienez beste hiru hilabetean jarduera mantentzen denaren egiaztapenak egingo dira.

Lehenetsitako kasuetan, jasotako diru laguntzaren itzulketa prozedura hasiko da.

Itzulketa prozedura diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera egingo da, Alkate Ebazpenen arabera ebaztuko delarik.

10. artikulua.—*Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna*

Emandako laguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publiko edo pribatuk



AULESTIKO UDALA

emandakoekin, eta ezin izango da inola ere %100 baino gehiago izan diruz lagun daitezkeen egitate berberengatik.

Erakunde onuradunak Aulestiko udalari jakinarazi beharko dizkio diruz lagun daitezkeen kontzeptu berengatik laguntzak.

11. artikulua.—*Laguntzen publizitatea*

Xedapen honetan oinarrituta emandako laguntzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira 2021eko ekainean.

12. artikulua.—*Laguntzak emateko prozedura antolatu, bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak*

Eskaerak udaleko ekipoek izapidetuko dituzte eta Alkatetzak ebatziko ditu.

13. artikulua.—*Aurrekontu-saila*

Laguntzak aurkeztutako eskabideen ordenaren arabera emango dira.

Diru-laguntza horiek emateko indarrean dagoen aurrekontu-muga 10.000 eurokoa da 2020an, eta Dirulaguntzak COVID-19 aurrekontu partidaren kargura izango dira.

14. artikulua.—*Ebazteko epea*

Espedienteak ebazteko gehieneko epea eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabete igarotakoan amaituko da.

15. artikulua.—*Aplikagarria den araudia*

Oinarri hauetan aurreikusi ez diren alderdi guztietarako, aplikagarriak izango dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, bai eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta haren izaeragatik aplikagarri izan daitekeen beste edozein arau-xedapen ere.

16. artikulua.—*Zigor araubidea*

Arau-hausteen eta zigorren araubidea, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorren IV tituluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortze-ko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa izango da.